

BLOKEAK ETA ERREFERENTZIAK

- **1 Blokea: *Esparru Globala*: Hego Globala eta Teknologia Emergenteak**
 - o Bloke honek eztabaida esparru globalera eramango du, konferentzia magistral baten bidez. Hegoalde Globaleko (Latinoamerika, Afrika, eta Asia) kasu erregionalak digitalizazioak nola eragiten duen aurkeztea du xede nagusitzat.
 - o Esparru geografikoaz gain, beste konferentzia magistral baten bidez, bloke honek teknologia emergenteak ere aurkeztuko ditu eta zergatik den garrantzitsua dezentralizazioa AAren esparru globalean.
 - o Bloke hau ponentzia-zubi batekin amaituko da, zuzendaritzaren eskutik: esparru globala zubi gisa lotuko duena plataformekin (2. Blokea) eta politikentzako ondorioekin (3. Blokea).
 - o Metodologia: Konferentzia Magistralak (3).
- **2. Blokea: *Plataformak eta Tresnak*: Laborategia/Agora**
 - o Bloke honek teknologia emergenteen aplikazioari buruzko ezagutza partekatuko du (AA, datu kooperatibak, etab.).
 - o Metodologia: *Workshop* (3). Praktikatzailen arteko tailer modukoa izango da.
- **3. Blokea: *Politika-Ondorioak*: Stakeholders**
 - o Bloke honek parte hartzaile desberdinei eskatuko die gizarte berrikuntzarako AAri buruzko eztabaida irekian koka ditezten
 - o Metodologia: *Lightning Talk* (7). Erakunde publikoak, sektore pribatua, Hirugarren Sektorea ordezkatzan duten politika egileen Hitzaldi Azkarrak izango dira gizarte berrikuntzatik AAri buruz.

Dr. Igor Calzada (Ikerbasque, EHU, eta Cardiff University-eko Ikertzaile Nagusia) eta Fernando Mudarrak (Ayuda en Acción-eko Gobernu Kanpoko Erakundearen Fundazioaren Zuzendari Nagusia) zuzenduta, ekimen hau, 2019ko 'Smart Rural Communities' Uda Ikastaroaren jarraipena da. Udako ikastaro hartan, Kolonbian eta Mozambiken gatazka osteko landa eta urruneko eremuetako kasuak sakon aztertu zituen *Living Labs*-en oinarritutako prototipo teknologiko intentsiboak egikarituz; c, d).

2024ko Irailean 2 eta 3an, nazioarteko ikuspegiak (Erresuma Batua, Mexico, Kenya, India, Canada, Estonia y Rwanda) eta esperientzia praktikoak bilduko dira, bertaratuen ezagutza-sarea eta praktika-gaitasuna zabalduz. *Sic4Change* eta *Ideas for Change*, beste eragile eraldatzaile batzuen artean, ikastaroan bat egingo dute, digitalizazioa ekintza sozial bihurtzeko misioa indartuz.

Ayuda en Acción Fundazioa-ren *Social Solver* (www.socialsolver.org) prototipoa aurkeztuko da, teknologiaren aplikazio praktiko gisara, gizarte erronkak gainditzeko justizia digitalaren bidez erakusten duena. Eraikuntza fasean dagoen tresna honek, (i) AAri buruzko europar araudiekin lerrotzea du helburu (*AI Act*), (ii) eskubide digitalak eta pribatutasuna babestuz, (iii) gure Uda Ikastaroak partaideentzako ikasketa kasu praktiko bat eskainiz.

Gure programak parte-hartzaileei: (i) teorikotik harago joateko gonbita egiten die, disziplinen mugak gaindituz, (ii) akademikoak eta ez-akademikoak elkarretaratzuz, (iii) justizia digitala eta datuen subiranotasuna islatzen duten proiektuen ko-produkzioan inplikatzuz. Akademia eta Hirugarren Sektorearen lankidetzaren honetarik, gure bokazio demokratikoa eta berrikuntza digitala, gizarte eraldaketari ekarpena egiten dioten ekimen berriak sortzea espero dugu.

Aurrerapen algoritmikoaren garrantzia aitortuz, gure programak *Blockchain*, *DAOak* (*Decentralized Autonomous Organizations*), *Datu Kooperatibak* (e eta f), *Metabertsoa* eta *ChatGPT* bezalako joera disruptibo eta emergenteen inguruko eztabaidak txertatuko ditu. Gure curriculumak, gizarte zibila ahalduentzako du xede, datu subirautza nazioartean jokatuz, *Global North* eta *Global South*-eko kasuak azalduz horretarako (g).

Ondorioz, Udako Ikastaroak, AAren eta, ondorioz, gizakiaren ongizatea eta gizarte berdintasuna eragiten dituzten teknologia disruptiboen gizarte eraginari buruzko eztabaida ireki eta beharrezkoan ekarpenak egiteko aurkeztu da. Parte-hartzaile anitzek gogoeta kritikoa egingo dute hiritar digital guztientzako izan daitezkeen onura sozial potentzialen gainean.

Uda Ikastaro honek ez du soilik inspiratuko, baizik eta estrategia zehatzak ere eskainiko ditu ekonomia-sozialeko eragileei AA eta teknologia disruptiboak benetako zutabe bihurtzeko gizarte, ekonomia, eta demokrazia digital justu eta etiko bat eraiki dezagun.

Erreferentziak:

- a. Calzada, I. (2024), [Democratic Erosion of Data-opolies: Decentralized Web3 Technological Paradigm Shift Amidst AI Disruption. *Big Data and Cognitive Computing*, 8\(3\), 26. DOI:10.3390/bdcc8030026.](#)
- b. Calzada, I. (2023), [Disruptive Technologies for e-Diasporas: Blockchain, DAOs, Data Cooperatives, Metaverse, and ChatGPT. *Futures*, 154\(C\), 103258. DOI:10.1016/j.futures.2023.103258.](#)
- c. Calzada, I. (2023), [Smart Rural Communities: Action Research in Colombia and Mozambique. *Sustainability*, 15\(12\), 9521. DOI:10.3390/su15129521.](#)
- d. Calzada, I. (2023) [Smart Rural Communities for the Agenda 2030: Action Research, Living Labs, and SDGs. In Iyer-Raniga, U. *Contemporary Rural Development Programs*. Sustainable Development Book Series. London: IntechOpen. ISBN: 978-1-83768-274-4. ISSN: 2753-6580. DOI: <http://dx.doi.org/10.5772/intechopen.111909>.](#)
- e. Bühler, M.M., Calzada, I., Cane, I., Jelinek, T., Kapoor, A., Mannan, M., Mehta, S., Mookerjee, V., Nübel, K., Pentland, A., Scholz, T., Siddarth, D., Tait, J., Vaitla, B. & Zhu, J. (2023), [Unlocking the Power of Digital Commons: Data](#)

Cooperatives as a Pathway for Data Sovereign, Innovative and Equitable Digital Communities. *Digital*, 3(3), 146-171. DOI: <https://doi.org/10.3390/digital3030011>.

- f. Calzada, I. (2021), [Data Co-operatives through Data Sovereignty. *Smart Cities* 4\(3\), 1158-1172. DOI:10.3390/smartcities4030062.](#) Special Issue “Feature Papers for Smart Cities”.
- g. Calzada, I. (2020), [Platform and Data Co-operatives Amidst European Pandemic Citizenship. *Sustainability* 12\(20\): 8309. DOI: 10.3390/su12208309.](#)
- h. Madrigal, J.M., Ghonaimy, I.H. & Calzada, I. (2023). [To Practice Sustainability in Architecture and Urbanism: Contemporary Approaches. *Sustainability*.](#)
- i. Bibri, S. et al. (2024), [Critical Insights in Environmental Studies.](#)